



DEBAKO UDALA

DEBAKO HONDARTZA

2026ko udaldiko toldoak esleitzeko prozedura

Esleipenak 2026ko **ekainaren 3an egingo den zozketa** irekian oinarrituta egingo dira. Zerbitzuak hurrengo urteetan jarraitzen badu eta udalak hala baderitzo, zozketak hurrengo 3 urterako ere balioko du, hau da 2029ko udara arte. Hau da, zozketa honen emaitzek 2026, 2027, 2028 eta 2029 denboraldietan izango dute balioa.

Zozketan parte hartzeko izen-ematea maiatzaren 21etik 27ra egin ahal izango da.

Zozketatzen diren toldoak: 144. Ikusi azken orriko planoan bakoitzaren kokapena.

- 1. multzoa: 33 toldo
- 2. multzoa: 29 toldo
- 3. multzoa: 28 toldo
- 4. multzoa: 34 toldo
- 5. multzoa: 20 toldo

Eskaera egiteko baldintzak

- 18 urtetik gorakoa edo adingabe emantzipatua izatea
- Europar Batasuneko edozein udalerritan bizitzea
- Pertsona eta helbide bakoitzeko inskripzio bakarra egin daiteke.
- 100 €ko fidantza ordaintzea

Oharra: Zozketan tokatutako toldoaren ordainketarik ezarritako epean ez bada egiten, fidantza galduko da.

Mugikortasun gutxiko Toldoen erreserba (ez dira zozketatuko)

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako beste 10 toldo gordeko dira, ez dira zozketatuko, baina zehaztutako epean eman beharko dute izena. Horiek mugikortasun baremoan A, B edo gutxienez 7. mailako desgaitasuna dutela egiaztatu behar dute.

Desgaitasuna duen adingabe batentzat eskaera egin nahi izanez gero, gurasoek familia-liburua aurkeztu beharko dute, eskaera haien izenean egin dadin. Legezko tutoreen kasuan, berriz, hori egiaztatzen duen agiria.

Lehentasuna hori zozketa egin arte mantenduko da. Data hori (ekainak 3) igaro ondoren, toldo libreak honako hauei esleitu ahal izango zaizkie: Aldi baterako mugikortasun murriztua duten pertsonak, istripuren bat gertatzen bada, edo adinagatik mugikortasun iraunkorra dutenak (75 urtetik gorakoak).

Zerbitzua hasten denetik aurrera (ekainaren 13), talde horretako toldo libreak gainerako herritarrei esleitu ahal izango zaizkie.



DEBAKO UDALA

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Nahitaezkoa da izapide honetan adierazitako formularioa erabiltzea (I. eranskina. Udaldiko toldo eskaera). Talde bakarra aukeratu ahal izango da.
- Fidantza ordainduta izatearen ziurtagiria
- Desgaitasuna duten pertsonentzako toldoak eskuratzeko, lehentasuna izango dute A, B edo 7. mailako mugikortasun mugatuko baremoaren ziurtagiri ofiziala, ziurtagiri medikoa baino. Ziurtagirien edo horien irudia duten fitxategi bat aurkeztu behar da.

2026 denboraldiko abonauak:

	Tasa
1. ilarako toldoak, denboraldia	245 €
2. ilarako toldoak (5. Multzoa eta mugikortasun gutxikoak)	220 €

Urtetik urtera tasek igoera izan dezakete.

PROZEDURA

	Epemugak
1. Zozketan izena ematea. Web bidez edo aurrez aurre turismo bulegoan. Nahitaezkoa I. eranskina betetzea eta 100 €ko fidantzaren ordainagiria aurkeztea	Maiatzak 27
2. Izena eman dutenen behin-behineko zerrendak argitaratzea. NANA eta zozketarako zenbakia udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan argitaratuko dira.	Maiatzak 28
3. Alegazioak egiteko epea	Ekainak 1
4. Behin-betiko zerrendak argitaratzea	Ekainak 2
5. Zozketa. Toldo-multzo bakoitzeko zozketa bat egingo da. Talde bakoitzeko lehen zenbaki sarituari mendebaldeko muturrean dagoen lehen toldoa egokituko zaio, eta hurrengoak korrelatiboki esleituko dira zerrendei jarraiki, talde bakoitzeko toldo-kopurua osatu arte. Zozketaren emaitzak udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan argitaratuko dira.	Ekainak 3
6. Zozketaren ondorioz izandako emaitzaren hurrenkera jarraituz, behin-behineko ordezkoen zerrendak eratuko dira multzo bakoitzeko.	Ekainak 3
7. Toldoa ordaintzea. Zozketa egin eta hurrengo 6 egunetan toldoa ordaintzen ez bada, toldoa izateko eskubidea galduko da. Toldoaren kopuruari aldez aurretik ordaindutako fidantzaren 100 €ak ezabatuko zaio. Beraz, lehenengo ilaran tokatu bazaizu, 145 € ordaindu beharko dira toldoagatik.	Ekainak 9



DEBAKO UDALA

<p>8. Behin ordainketa epea amaituta, ordezkoen zerrenda eguneratuko da. Behin-betiko ordezkoen zerrenda eta libre gelditu diren toldoen zerrenda udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan argitaratuko dira.</p> <p>Hurrenkerari jarraituz, izena ematerakoan aukeratutako multzoaren mendebaldetik hasita libre dagoen lehen toldoa esleituko zaio zerrendako lehenengoari. Multzoka, toldo guztiak bete arte edota ordezkoen zerrenda agortu arte jarraituko da.</p>	Ekainak 10
---	------------

Izen ematea:

Presentzialki Turismo bulegoan edo google forms bitartez, honako lotunean:

<https://forms.gle/kQFuPMSDEP9iyFWQ7>

Nahita nahiezkoa:

- 1_Eranskina inprimakia bete eta sinatu.
- 100 €ko fidantza ordaindu. fidantzaren ordainagiria ere aurkeztu behar da.

Fidantza ordaintzeko kontu-zenbakia: **ES44 2095 0043 1091 2555 3561**

Izena eman baina toldoa esleitu ez bazaizu, ekainaren lehen hamabostaldian bueltatuko zaizu dirua.

Zozketa:

Ekainaren 3an, goizeko 09:00etan, udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan.

Zozketa aplikazio informatikoaren bidez egingo da, eta horrek arazoak ematen baditu, zenbakidun-bolatxoak eskuz aterata egingo da.

Ordainketa:

Toldoa esleitu ondoren egin behar da ordainketa, kasu honetan fidantzan jarritako 100 €-ak kenduta. Hau da, lehen ilarako toldoa tokatu bazaizu, 145 € ordaindu beharko duzu soilik.

Transferentzia bitartez egingo da jarritako epean eta ordainagiria bidali beharko da debahondartzazerbitzua@gmail.com helbidera. Helbide elektronikorik izan ezean jar zaitetzte arduradunarekin kontaktuan hurrengo telefonoan **688678396**

Kontzeptuan norberaren izen-abizenak eta esleitutako toldoaren zenbakia jarriko da.

Kontu zenbakia ordainketak egiteko, **Kutxabank: ES44 2095 0043 1091 2555 3561**

Zozketan esleitutako toldoaren ordainketarik ezarritako epean ez bada egiten, fidantza galduko da. Aldiz, izena eman baina toldoa esleitu ez bazaizu, ekainaren lehen hamabostaldian bueltatuko zaizu dirua.



PLANOA

